



205. zenbakia

· MARTXOA 2021 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

**ARGITARATZAILEA AMETZA
KULTUR ELKARTEA**

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Lurra eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Energia ekoizteko beste eredu baten alde batu dira Anotzibarko herritarrek eta hori adierazteko zutoina jarri dute herriko sarreran.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira martxoaren 5ean bidalia



ETXEKO DRAGOIA
(Leire Bilbao, Scanner, 2011)

“ Amak dena garbitzen du
jasoa zaindua ordenatua
behar da etxea
trapuak ateratzen
zaizkio Amari
eskuetatik besoetatik
omoplatoetatik
hegan egiten du
dragoi zaindari batek
bezala bere gazteluan

Amak keinu batekin
eltzeak jartzen ditu sutan
behi okela egosten du
hegalak zabaltzen ditu
kumeok batzeko



Amak dena dauka prest
Ama beti dago prest
Amak dena egiten du ondoen
hautsa astintzen du edonoiz
sua ateratzen da
Amaren ahotik
orro egiten du bakea
agindu behar denean

Amak dena garbitzen du
jasoa zaindua ordenatua
behar da etxea
Ama beti dago hor
Ama beti dago hemen

Amak ez du etxean
arrotzik nahi
Amak ez du zomorrarik
inurririk puntu beltzik nahi

Amak sua eragin dezake
ahoarekin begiekin esku biekin

egun batean Amak
Aita garbitu
eta atsedeen unerik hartu gabe
arrautza zaharra erruten
eseriko da //




Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



ETXEBIZITZA PROMOZIOA

18 ETXEBIZITZA **8** LOKAL KOMERTZIAL

- 
- 2, 3 eta 4 logeletako etxebizitzak trasteroarekin Doneztebeko Elizagibela kalean
 - Lokal komertzialak



Elizagibela
Promociones S.L.

www.elizagibelapromociones.com
elizagibelapromociones@gmail.com

T. 643 466 998



Eskualdeko ostatuak eta jatetxeak, segitzeko ahaleginetan

Pasa zen urtean, itxialditik atera berriak ginela hitz egin genuen inguruko hainbat ostaturekin, haien egoera ezagutzeko. Orduan gogoz eta itxaropentsu ikusi genituen. Ia urtebete ondoren, eta udazkenaz geroztik denbora gehiena barrualdea itxita izan dutelarik, haien egoera berriro ezagutu nahi izan dugu. Neurriak oraindik luzerako egonen direla jakinda, egoera pazientziaz hartzeko borondatez dira gehienak, eta neguko okerreina pasata, etsitzeko asmorik ez dute. Tamalez, aurrera jarraitu ezin izan duenik ere badago,

Itxialdiaren ondoren, tabernak maiatzaren erdialdean irekitzeko aukera izan zuten berriz ere. Geroztik, etengabe neurrien menpe egon dira: aste batean barnealdea irekitzen uzten bazieten, hurrengoan berriz ere ixteko agindua jaso zuten; orain, azkenekoz, otsailaren 26tik aurrera zabaldu dute barnealdea. Edukiera eta ordutegi aldaketak ere izan

dituzte etengabe, eta urrian erabat itxita izan ziren hainbat astez.

Horrela, gurean denetarik dago, kanpoaldean estalpe edo karpabat eta berogailuak jartzea erabaki dutenak, zuzenean barnealdea ireki ezin duten bitartean ixtea erabaki dutenak, ... baina baita tabernarekin aurrera jarraitu ezin izan dutenak ere.

Denboraldian, sagardotegiak itxita

Denboraldi eta erdi galdu dituzte Berueteko sagardotegiek. Pasa zen urtean otsailean besterik ez zuten zabaldu. Honetan ez dute irekiko.

Txaseneko Borda

“Pasa zen denboraldian erdia egin genuen, eta beno, conforme. Baina banuen beldurra aurrean izanen zela okerreina, eta hala izan da”, esan digu Txaseneko Bordako Angel Alvarezek. “Guk ez genuen irekitzeko asmorik, serioak izan behar dugu. Bestela, hona etorriko den jendeak ez du disfrutatuko, guk ere ez, polizia lanetan”.

Txaseneko Alvarezek esaten digunez, halere, sagardoa saltzeko arazorik ez da egon: “%5 besterik ez da edaten sagardotegi garaian sagardotegian. Botilak erostera datorrenari eta dendetan saltzen jarraitu dugu. Txotx garaian ixteagatik ez da berez gehiegi galtzen. Beste alde batetik galtzen da, hau da, gu bezalakoendako txotx garaia erakusleiko bat da. Zentzu horretan izorratuta gaude”.

“Otsailaren 26tik aurrera berriz sar gaitzke tabernen barnealdean



Txaseneko Bordako Angel Alvarez ETBko
Juego de Cartas lehiaketa irabazi zuen



Behetxonea

Hain zuzen ere, Berueteke beste sagardotegian, Behetxonean, pasa zen urtean inoiz baino sagardo gehiago saldu zuten, Ignacio Soraluzek esaten digunez, baina sagardotegia itxita egoteak kalte handia eragin die: "Txotx garaian ateratzen diozu errentagarritasuna sagardoari, botilen salmentak ez baitu irabazteko tarterik: botilak, etiketak, banaketa... gastu horiekin ez dago ia irabazirik".

Soraluzek Aitona jatetxea ere badu Lizason. Han estalpe handi bat egin du terrazan, eta horrek mantentzeko aukera ematen dio: "baina irabaziak asko jaitsi dira, noski. Alokairu altuarekin harrapatu duena oso gaizki pasatzen ari da, jende asko ezagutzen dut horrela, egoera kontatzean negarrez hasten zaizkizu. Gu hemen, momentuz, mantentzen gara. Tokia gurea da eta ez dugu mailegurik, baina duela 10 urte harrapatu bagintu zubi azpian ginateke orain".

“ Ignacio Soraluze:
"Duela 10 urte
harrapatu bagintu
zubi azpian
ginateke orain"
”

Basaburuan, bi baja

Orokietza

Orokietan pandemia iritsi baino lehen aurrera jarraitu edo ez zalantzatan ziren Ernaizu kooperatibako kideak, baina azken aukera eman zioten ostatuari: "Kontuak ez ziren ateratzen eta hori aztertzen aritu ginen. Azkenean, beste bultzada bat ematea erabaki genuen, baina momentu honetan bi proiektarekin aurrera jarraitzea oso zaila da. Eskape jokoa izateko ostatua zabalik izan behar duzu, eta momentu honetan, Orokietan, ezinezkoa da, edukierarekin 10 pertsona besterik ezin baitira sartu", esan digu Ernaizuko Virginia Gerendiainek.

4 urte eman dituzte Orokietan. Ixtearekin momentu latzak bizi dituzte kooperatiban, gogo eta ilusio handiz jarri baitzuten martxan proiektua eta erabakia hartzea gogorra egin zaie.

Aizarotz

Aizarotzen 2019tik darama itxita, irailean utzi zuen Ana Irigoienek hiru urteren ondoren, eta egindako deialdietan inor ez zen animatu lekukoa hartzera. Orain, azkenean, hartzeko prest zeuden batzuk, eta irekitzera zihoazenean tabernak ixteko agindua iritsi zen. Horregatik, atzera egin dute.



▲ Behetxonea sagardotegia itxita du Berueten, baina Aitona jatetxearekin mantentzeko aukera du Ignacio Soraluzek



Ostalaritza,

oztopoei aurre eginez

Hasi berriek ez dute itxaropenik galtzen

Egoera zaila izanda ere, atzera egin ez dutenak lgoakoak eta Beuntzakoak izan dira. Biek urrian zabaldu zituzten ateak, eta momentuz, eusten diote.

Beuntza

Martxoko itxialdiaren ondorioz Beuntzako ostalua uztea erabaki zuen Kike Galarza Zelaia bakaikuarra, eta txukuntzeko lanak egin ondoren, kontzejuak udan zabaldu zuen deialdia. Garai txarrak izanda ere, Paula Arnaiz hura kudeatzera animatu zen. Ez du zortetik onena izan, inauguratu eta berehala etorri baitzen tabernak ixteko agindua. Ondoren, epe oso laburrean barnealdea irekitzeko aukera izan bazuen ere, terraza bakarrik jartzeko aukera eman du Nafarroako Gobernuak berriz, eta saiatu den arren, Beuntzan ez daude terraza irekita edukitzeko baldintzarik onenak:

"Orain gogotsu gaude berriz indarrez hasteko. Ni, beharbada, optimistegia naiz, baina uste dut amaieraren hasieran gaudela, alegia, txertoarekin eta eguraldiaren hobetzearekin gauza gehiago egiteko aukera izango dugula eta

hemen ere nabarrituko dela. Pixka bat gehiago eustea dagokigu, eta konfiantza izatea".

Arnaizek hamar urte pasa ditu adin txikiko zentro batean sukaldari, eta Beuntzan ostatuaz harago joan nahi duen proiektua jarri nahi du martxan. Goiko solairuan erabilera anitzeko gela bat dago eta bertan hainbat jardura abiatu nahi ditu: umeei zuzendutako arteterapia, gazte eta adinekoak biltzeko ekimenak...

Igoa

Igoako ostalua Maite Monterok eta Roberto Zuñigak hartu dute: "Urrian iritsi ginen, eta beharrezko gauzak lortzen genituen bitartean dena antolatzeko denbora hartu genuen. Irekitzeraz gindoazela tabernak itxi zituzten. Ezin izan genuen inauguraziorik egin". Terrazarekin eta eramateko jakiak prestatuz aritu dira lanean geroztik. "Dena den, eramateko jana egin genuen lehenengo asteburuan dena bukatu zitzaigun, ez baikenuen hainbesteko eskaririk espero. Azkenean, herriak biltzeko duen guinea da hau, eta nabaritzen da", azaldu digu Roberto Zuñigak. Dirulaguntzez galdetuta, ez daude oso konforme: "Konfinamenduan ongi egon ziren, hor ongi portatu ziren, baina orain...

Roberto Zuñigak eta Maite Monterok hartu dute Igoako ostalua ▼



laguntzak jasotzeko 6 hilabetetan 4.000 euro baino gutxiago fakturatu behar duzu", adierazi digu Maite Monterok. Baina egoera zaila izanda ere ez dute uzteko asmorik: "Gu oso gustura gaude hemen, eta uda arte eusteko moduan gaudela uste dut. Jendeak nahiko ongi erantzuten badu, guk ez dugu gehiegi xahutzen, eta bizitzeko ematen digu", argi du Zuñigak.

Iruñekoak dira Maite Montero eta Roberto Zuñiga, eta Artazako kanpinean lanean aritu ondoren etorri dira Igoara. Monterok bizitza osoa darama ostalaritzan, eta Zuñiga askotariko lanetan ibilitakoa da: Berrioplanoko rokodromoa fundatu ondoren, margotze lanetan, komunitateko manparak jartzen eta teilatuak egiten aritu da.



Paula Arnaizek hartu du Beuntzako ostalua ▲

Udalerriko ostalutxoak eta sagardotegiak diruz lagunduko ditu Basaburuko Udalak:

Otsailaren 25eko udal batzarrean onartu ziren udalerriko ostalaritzari zuzendutako dirulaguntzak. Ostalua eta sagardotegi bakoitzarendako 1000 euroko laguntza izanen da. Esther Lakasta alkatea: "Badakigu horrek ez duela inoren egoera konpontzen, baina gure babesa eskaintzeko ekintza da, badakigulako egoera latza bizi dutela".



Euskara errazeko ariketak

Nolakoa da umeen hizkuntza?

Hizkuntza gehienek, mendeetan zehar, haurrekin hitz egiteko modu berezia izan dute. Euskaraz ere **haur hizkeran** tradizio ederra dago. Baina galtzen ari da, neurri handi batean, etxeko giroan erabiltzen den hizkera delako, eta askotan, etxekoek ezin dutelako haur hori txikitatik euskaldundu; beraiek euskaldun berriak edo erdaldunak direlako.

Baina nolakoa da haurren hizkera hori? Hona hemen euskaraz haur txikien hizkerak dituen **ezaugarri** batzuk:

- Haurrari beti **zuka** egiten zaio zazpi-zortzi urte bete arte.

- Haur txikitxoek hizkuntzan bi pertsona besterik ez da izaten: haurra bera eta beste guztia. Eta askotan haurra bera ere beste pertsona baten moduan hartzen da: *Nork egin du hau? Osabak egin du?* (Eta hizketan osaba ari da). *Ainirek egin du?* (Eta Ainire haurra da)

- Haurraren inguruko munduari dagozkion hitz bereziak erabiltzen dira eta eguneroko jardunarekin lotzen dira: **punba, lolo, ñañan, txitxi, pipi, pupu...**

- Gehienak bi silabakoak edo silaba bakarrekoak dira eta askotan onomatopeien antzeko errepikapenak egiten dituzte: **taka-taka, plisti-plasta, kas-kas, tas-tas...**

- Bustidurak ere umetatik lantzen dira euskal tradizioan: **ttipi-ttapa, llo-llo, ñañan, ttilin-ttalan, ttette...**

Honen guztiaren arabera, ohartzen gara alor hau ez dela galtzen utzi behar; haurren hizkera baita hizkuntza bat bere osotasunean irakasteko biderik onena.



A) Aurreko testua irakurri ondoren, idazteko mementoa heldu da. Haurren hizkuntzen testu hori ongi ulertu baduzu, oso ongi erantzungo dituzu segidako galdera hauek. Ekin lanari!

1. Zergatik ari da galtzen haur hizkuntza euskal tradizioan?
2. Haurrari txikitatik hiketan hitz egiten zaio?
3. Zenbat pertsona daude haur hizketan? Zein?
4. Zenbat silabakoak izaten dira hitzak? Zeren antzekoak?
5. Zergatik ez da utzi behar haur hizkera galtzen?

B) Hurrengo esaldi hauek bi zatitan banaturik daude eta zure lana hauek modu egokian elkartzea izango da. Oso erraza da, beraz, aurrera!

- A)** haurren hizkera da...
- B)** askotan haurra ere...
- C)** euskaraz ere...
- D)** haurren hitz bereziak...
- E)** haurrari zuka egiten zaio...

- 1) eguneroko jardunarekin lotzen dira
- 2) hizkuntza irakasteko modurik onena
- 3) zazpi zortzi urte bete arte
- 4) haur hizkeraren tradizio ederra dago
- 5) beste pertsona bat bezala hartzen da

Hiztegia

• **-Hizkera:** forma de hablar

• **-Ezaugarri:** característica

• **-Zuka:** zuka eta hika bereizten dira euskaraz. Hika edo hitanoa hurbilekoekin edo lagunartean egiten da. "Hi etorriko al haiz" (hitanoa), "Zu etorriko al zara" (zuka)



1921. urtera atzera egin zuten Esan Erran irratian

Irrati uhinetatik ez da kutsatzeko arriskurik, eta, horregatik, giroa zerbait alaitzeko, saio berezi bat egin zuten Esan Erraneko Egun Ero irratsaioan. Otsailaren 17an izan zen hori, atal eta pertsonai bereziek lagunduta.

1921. urtera atzera egin zuten eta orduko irratsaioa prestatu zuten. Erredakzioa eta esatariak garai hartaz jantzi, orduko musika jarri, eta garrantzitsuena, gonbidatu berezi-bereziak izan zituzten. Annie Edson Taylorren historia eroa entzun ondoren (Niagara urjauzietatik bota zen upel batean, 1901. urtean), Lizasoko Itziar Olague Barberenak Margari Eltso Egiloren azalean jarri eta fikziozko elkarriketa egin genion, Margari Eltso delakoa izan omen baitzen halakorik egin zuen lehena.

Ondoren, Iñaki Larraiotz Aranoren musika tartea tokatzen zenez, kolaborazio berezi bat prestatu zigun ultzamarrak. Django Reinhardt ospetsuaren interpretazioa egin zuen. Swing eta jazz musika irauli zituen belgiarrak, hiru behatzen mugikortasuna galdu ondoren, bi behatzeko jotzen baitzuen gitarra. Haren musika jo zigun, zuzenean, Larra Bideak diskaren egilea den Larraiotzek.



1921era atzera egin zuten Esan Erranen

Esan Erraneko eduki guztiak bezala, amezti.eus-en duzue entzungai. Eta ez bakarrik entzungai, ikusgai ere, saio bereziaren bideoa igo baitugu.

Ihote mostra egin zuten Lantzen

Aurten, 1965ean berreskuratu zirenetik, izurritearen ondorioz, lehenengo aldiz bertan behera gelditu ziren Lanzko ihoteak. Otsailaren 15ean eta 16an egitekoak ziren, baina Covid-19aren hedapena saihesteko, bertan behera utzi zituzten. Baina, sorpresaz, seinale txiki bat egin zuten txistulariek lagunduta.

Otsailaren 15ean ilunabarrean, astelehenarekin, mezu bat zabaldu zuen udalak herritarren artean. Hurrengo egunean, iluntzeko 20:00etan txistulariak kalejira eginen zuten herrian barna, eta ondoren zortzikoa dantzatuko zuten gutxi batzuk plazan. "Kanpoko jenderik gabe eta herritar gutxi hurbilduta leku aise zegoen segurtasun distantzia mantentzeko. Eta horrela egin genuen", azaldu zigun Luis Mariñelarena Lanzko herritarra. "Herrian oso pozik agertu ziren, jendea leihora atera zen txistulariak agurtzeko, elkartasun keinu bat bezala ikusi zuten haien agerpena. Pena pixka bat baretzeko balio izan zuen", adierazi zuen Mariñelarenak.



Lanzko zortzikoa 2019an



Basaburuko Ttikiena haur eskola bete da aurten

Martxoaren 1etik 15era bitartean zabaldu du Nafarroako Gobernuak haur eskoletan matrikulatzeko epea. Horregatik, gurean ere, otsaila bukaeran ate irekiak egin dituzte eta matrikulazio kanpainarekin hasi dira. Ikasturte nahasia izanik ere, pozik agertu zaizkigu Basaburuko eta Ultzamako haur eskoletan.

Jauntsarasko Ttikienan sei haurrekin hasi zuten ikasturtea eta kurtsoan zehar beste bi matrikulatu dira. Gainera, apiriletik aurrera bi ume gehiago izanen dituzte gelan, eta horrela, plaza guztiak beteko dituzte. Martxoaren 15era arte zabalik da aurrematrikula epea eta etorkizuna asmatu ezin duten arren, hurrengo urtera begira gela berriz beteko dela uste dute eskolan. Albiste ona, ikasturtea nahasi xamarra izan den arren: "Ikasturtea nahasi xamar hasi genuen, izurrite egoerarengatik, baina buelta eman diogu eta nahiko lasai gaude", esan digu Amaia Oloriz langileak.

Otsailaren bukaeran, urtero bezala, haur eskolako ateak zabaldu zituzten, haien proiektua erakusteko, eta oso ongi joan zen. Aurten ere haur eskola txiki baten abantailak azaldu dituzte, Nafarroan ratioak jaisteko borrokan diharduten honetan: "Orokorrean ratioak oso altuak dira. Gero eta formakuntza gehiago dugu, eta horregatik, gero eta argiago dugu gauzak nola egin behar ditugun. Haurren garapen egokia ziurtatzeko bakoitzaren erritmoa errespetatu behar da eta talde handietan hori oso zaila da".

Iraizotzen, Xinbili Xanbala haur eskolan guztira 18 ume dituzte: zortzi, betarik dagoen 0 eta 1 urte bitarteko gelan, eta hamar 2 eta 3 urte bitartekoan. Txikien modulua bete baldin bada, bigarrena ia-ia minimoan dago, gutxienez bederatzi ume egon behar baitira matrikulatuta, eta hamar izan dira aurten. Maitane Mendibe langileak esan digunez, dena den, pozik dira: "Aurten bi modulu ditugu eta Covid protokoloa betetzen ari gara. Momentuz oso kontent gaude eta ez dugu gelarik konfinatu".

Emakumea behar zuen izan



8M
EMAKUMEEN
NAZIOARTEKO
EGUNA



iritzia



Juan Luis Zabala

Berria

Norena da ikurrin hori?

2020ko abenduak 31

Konfinamenduaren ondoren mendira joateko grina zabaldu zenean, ETB1eko Eztabaidan saioko gonbidatu batek ez dut gogoan norik esan zuen: «Barruan daukagun Juanito Oiarzabal atera zaigu denoi!». Berehalakoa izan zen nire erreakzio sumindua: «Et, et, et», egin nuen oihu neure artean halakorik egin baldin badaiteke. «Nik ez daukat Juanito Oiarzabalik barruan. Baita zera ere! Horixe besterik ez genuen behar!».

Horixe etorri zait gogora hau irakurri dudanean EITBk hedabideetara igorritako agiri batean: «Datorren urtarrilaren 7an, osteguna, El Conquistador del Caribe abentura saioak edizio berri baten lehen atalaren aurrestreinaldia egingo du Donostiako Kursaallean, urtarrilaren 11n hasiko baita ETB2n eta eitb.eus-en denboraldi berria».

Berez, ez daukat ezer pertsonalik Juanito Oiarzabalen aurka, eta seguru nago berarekin mendi buelta bat egingo banu ederki moldatuko ginela biok, baina bien bitartean ezin dut burutik kendu gizona El Conquis-eko izar nagusietako bat dela, eta El Conquis aipatu orduko amorrarazten nauten kontu asko datozkit burura, eta legenak larruazalera: ETBk edulkoratutako kanpaina gezurtiak gorabehera, gaztelaniari ematen dion lehentasun zapaltzailea; (ustezko) euskaltasunaren erabilera zabar eta politikoki deitoragarria; edukazio txarraren sustapen debaldekoa; hitz zakarraren eta biraoaren inflazio debaluatzaile antropologikoki kezkagarria... Zer ez du El Conquis-ek, izan ere, erabat deseredugarri?

Saioaren iragarki erraldoiak ere jarri dituzte hainbat eraikinetan, ikurrina lau haizeetara zabaldua erakutsiz, promozioa egiteko. Euskara eta euskal kultura dauden bezala egonda telebistaren panorama orokorrean, eta kontuan hartuta ETB Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politika eta Kultura sailak finantzatzen duela, sailaren aurrekontu osoaren ehuneko handi bat bereganatuz, ETBko ardura dunei ez al lieke lotsa eman behar lotsa pixka bat gutxienez, ETBren programazioaren ikur nagusia El Conquis izateak? Ez ba! Harro daude!

«Bandera trapu bat da haizerik ez badabil», dio Dut taldearen kantu mitiko ezagunak. El Conquis-ek Karibe konkistatura eramandakoa ez da trappua, arrakastaren haizeak darabilelako, nonbait. Baina norena da ikurrin hori? Nirea ez behintzat.

Auzolana egin du ImotzEKO brigada berdeak

Otsailaren 27an Imozko herritar talde bat Latasako frontoian elkartu zen ImotzEKO brigada berdeak deituta. Plazaolako ibilbide inguruko zabor guneak garbitzeko zegoen auzolana deituta. Abenduaren 6ean zuten lehenengo ekimena egitekoa, baina eguraldi kaxkarrak atzeratzera behartu zituen orduan antolatzaileak.

Herritarren artean galdetegia zabaltzea izan zen ImotzEKO taldeak egin zuen lehenengo gauza, Imozko ingurune natural desberdinetan zeuden zabor-pilaketak identifikatzeko helburuz. Behin hori lortuta, pixkanaka eta pausoz pauso auzolanak deitu eta ingurua garbitzen joatea dute asmo.

“Aspaldidanik genuen imoztar frankok ingurumenaren alde ekiteko gogo. Gutako askorentzat kezka- eta kexa-iturri bilakatu da gure bazterrak zaborrez josiak ikustea”, zioten urrian zabaldutako oharrean. Bada, garbiketa deialdiokin jendearen jarreraren aldaketa bat gerta dadin nahi dute, eta hitzetatik ekintzetara pasatzea.

15 bat lagun bildu ziren lehen ekimenenera, Alazne Fernandez de Munia in taldekideak Esan Erran irratiari azaldu zigunez. Plazaola bidearen inguruan aritu ziren garbiketari, eta espero zutena baino zabor gehiago topatu zuten bertan. Aurrerago beste toki batzuetan brigada berde gehiago egingen dituztela ere jakinarazi zuen Fernandez de Munia inek.



15 bat lagun bildu ziren brigada berdearen lehen ekimenenera, haurrak eta helduak zeuden tartean



Uxama mikrokooperatiba da Ultzamako Parke Mikologikoko kudeatzaile berria

Garrapo. S.L. enpresa izan da azken urteetan Ultzamako Parke Mikologikoaren kudeaketaz arduratu den entitatea. Bertako kide diren Amaia Esparza eta Edurne Gerendiain aritu dira buru-belarri lan horretan. Baina urtarilaz geroztik, beste talde bat ari da Parke Mikologikoaren kudeaketan: Uxama mikrokooperatiba. Javier Gomez eta Maria Manzanal dira taldekideak.

Hainbat hitzaldi antolatu dituzte otsailean zehar Uxamako kideek, 'marzuelo' edo martxoko ezkoei buruzkoa adibidez. Eta parte mikologikoak egiten ere ari dira, beraien facebook orrialdean dituzte azken hilabeteetakoak ikusgai.

Pulunpeko lantaldetik eskerrak eman nahi dizkiegu Garrapoko kideei urteotan izandako elkarlanagatik, eta zorte ona opa diegu kudeatzaile berriei.



▲ Uxamako Javier Gomez eta Maria Manzanal

errigora

MARTXOAK 4 - 24

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

Plateretik baratzerara

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra -5 litroka- eta arroza, pasta eta kontserbak -12 ontzika- euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.

errigora.eus



Abian da Errigoraren udaberriko kanpaina

'Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura' izeneko kanpaina abian egonen da martxoan zehar. Oraingo honetan oliba-olio birjina estra, kontserba-sortak, pasta eta arroza eskatzeko aukera egonen da: orburuak, zainzuriak, potxak, pikilloko piperrak, menestra... Nafarroa hegoaldeko barazkiak guztiak. Ekoizpen ekologikoan edo konbentzionalean ekoiztutakoak, biak daude aukeran. 12 poteko loteak dira eskaintzen direnak, eta barazkien kontserbez gain, Nafarroan egindako pasta ere badago aukeran iaztik. Errigorako planteamendua urte osorako beste eskatzea izaten da.

Martxoaren 4tik 24ra bitartean egin beharko dute eskaera herritarrek. Gure eskualdekoek errigora. eus webgunean edo 848 87 12 23 telefono zenbakian egin beharko dute, eta Lekunberri izanen da ondoren produktuak jasotzeko hurbilen dagoen tokia (Basaburua

eta Imozkoentzat, behintzat. Beste Udalerriek Iruñerria izanen dute hurbilen, ziurrenik). Eskaera guztia batera egin beharra dago, baina banaketa ondoren bi txandatan izanen da: apirilean bost litroko olio bidoiena, eta maiatza-ekainean kontserbena.



▲ Errigorako auzolana

Nordic Walking zentroa inauguratu dute Imotzen

Otsailaren 19an inauguratu zuten Nordic Walking' edo ipar martxa zentroa. Kirol hori praktikatzeko 40 kilometroko ibilbidea markatua dute honezkero udalerrian, eta Latasako geltoki zaharrean egonen da gune berezia. Inaugurazioko ekitaldian parte hartu zuten, besteak beste, Alfredo Unzueta alkatea, Beatriz Fernandez Hierro Nordic Walking zentroen koordinatzaileak eta Imozko hainbat herritarrek. 24.018,50 euroko inbertsioa egin dute proiektua

gauzatu ahal izateko, horietatik 16.812,95 Nafarroako diru-laguntza batetik jaso dituzte.

Ibilbideen artean, zailtasun desberdinetakoak aurki daitezke, norberaren gaitasun eta gustuaren arabera aukeran. Horrela mintzatu zen Unzueta alkatea inaugurazioan: "Hasieratik gustatu zitzaigun ekimena da, berritzailea zelako eta gure lurraldearekin bat datorrelako. Bertako baliabide natural eta kulturalak aprobetxatuz Imotzen garapen ekonomiko eta soziala bultzatuko du".



Nordic Walkinga praktikatzen, Latasan



Basoak bizirik nahi dituztela aldarrikatu zuten Anotzibarren bertso bidez

Euri jasarik zakarrenari muzin eginda, pasa zen ilbeltzaren 31n, **-Basoak bizirik, burujabetza energetikoa-** goiburupean, bertso saio beroa egin zuten Anotzibarren.

Eliza-atariaren arkupean metro eta erdika berezita jende mordoak bildu zen. Amundarainearen hegazpean, aterki eta xira, beste hainbeste. Txapeldun halakoak! Giro bikaina sortu zen.



▲ Hotzari aurre eginez, entzule ugari batu ziren ekimenera



Sarai Robles, Sustrai Colina eta Xabier Silveira bertsolariak ▲

Aldaungo tontorrari begira kantari aritu ziren bertsolariak. Sustrai Colina, Sarai Robles eta Xabier Silveira; hantxe jarri nahi dituztelako ia 200 metroko hiru haize-sorgailu beldurgarri. Baso bete-betean. Harizti eta pagadiak botaz.

Hamabi ditu denetara parkeak. Mendurro eta Ortzikaskon gainerako bederatziak. Eta guztiek Anotz herria inguratuko lukete, **Asterixen** komikietan erromatarrek herrixka nola. 6 m zabaleko 7 km pista berri, eta

9 km pista zaharberritu nahi dituzte. Konparazioa egite aldera, Erreniagako haize-errotek 59m dituzte, eta Parisko **Eiffel** dorreak 300 m.

Eta utziz gero, dena esku pribatuetan egonen da. Panamako ubidea goratu zuen Sacyr multinazionalenarenetan. Horregatik mezu garbia zabaldu zuten: Energia berriztagarriei bai, baina, ez horrelako tokietan, ez horren parke agresiboak, eta are gutxiago, dirua.



Iñigo Ibarra



Eskualdeko ekoizpen eta lan sektorea indartzeko proiektu kolektiboa

Landa Garapenerako Cederna Garalur Elkartek Leitzako Udalarekin abiatutako prozesuan du jatorria Mimukai proiektuak. Eskualdeko coworking komunitatea sortzea du helburu alde batetik, eta bestetik, produktuak eraldatzeko obratzaile kolektibo bat martxan jartzea. Hasierako fasean dago oraindik egitasmoa, eta heldu diren hilabeteetan joanen da forma hartzen, baina Nafarroako Mendialdeko hamaika udalerrri ekimenera batu dira honezkero. Gure eskualdetik Imotz, Basaburua eta Atetz.

“Anbizio handiko proiektua da esku artean daukaguna, eta ikusi beharko da zein forma hartzen duen azkenean”. Elena Irigoien Cederna Garalurreko teknikariaren hitzak dira, Mimukai egitasmoaz. Leitzako Udala hasi zen proiektua lantzen, baina sumatu zuten ideia eskualde zabalagora eramanez eta udalerrri gehiagoren arteko elkarlanarekin proiektu indartsuago bat lor zezaketela. Gaur egun Leitzakoaz gain, Arano, Goizueta, Areso, Lekunberri, Araiz, Larraun, Betelu, Basaburua, Atetz eta Imozko Udalak ere batu dira egitasmora. Datozen hilabeteetan parte-hartze prozesua egingen dute eskualde zabaleko sektore ekonomiko, eragile sozial eta herritarrekin, eta hortik

ateratakoarekin joanen da forma hartzen Mimukai garapenerako eta eraldaketarako zentroa.

Coworking komunitatea, kooperazioa bultzatzeko

Bi hanka izanen ditu Mimukai proiektuak: lehena, coworking zentroa izanen da, eraikinaren goiko partean joanen litzatekeena. “Coworking gunea ez da espazioa soilik, lan egiteko modu oso bati egiten dio erreferentzia: besteekin kooperazioa bilatzeko datza, toki fisiko horretan sortzen diren dinamikak konpartitzean, elkar ezagutzean eta sinergiak sortzean”, azaltzen du Irigoienek. Coworkingaren espazio fisikoa Leitzan egonen litzateke, baina egitasmoarekin eskualdean

honezkero martxan diren beste coworkingekin elkarlana eta kooperazioa bultzatu nahi dute. “Komunitate baten gisara ulertu behar dugu Coworking proiektua: Mimukai komunitateaz hitz egiten dugu guk”, gehitzen du.

Gure eskualdean Larraintzarren eta Muskitzen badira horrelako beste bi espazio lehenagotik. Bada, horiek indartzea eta dinamizatzea izanen litzateke egitasmoaren helburua, eskualde zabaleko beste guneeekin ere harremanetan jarritz. “Orain arte inguruko enpresa txiki bakoitza bere aldetik joan da, hori izan da lan egiteko modua, baina honezkero ez gaude fase horretan. Gaur egun, lehiakorrak izateko nahitaezkoa da enpresa txikiek ingurukoekin ahal den neurrian kolaboratzea eta elkarlanean aritzea”, dio teknikariak. Kataluniako Cowocat egitasmoa eredutzat dute Mimukairen bultzatzaileek: Katalunia guztiko landa eremuko eta herrietako coworking guneen sarea da Cowocat.



Maskilu Zeberioako kontserbera kolektiboa da, 2015etik martxan dena ▲

“Gaur egun lehiakorrak izateko nahitaezkoa da elkarlanean aritzea”



“Sektore ezberdinekin eta herritarrekin parte-hartze prozesua eginen dute hurrengo hilabeteetan”

Obradore kolektiboa, produktuak eraldatzeko

Proiektuaren bigarren hanka elikagaiak eraldatzeko gune kolektiboa litzateke. “Nekazaritzan edo abeltzaintzan ari direnek eraldatzeko guneak haien etxeetan eraikitzeak aukera dute, baina inbertsio handiak eskatzen ditu horrek”. Osasunari eta higieneari lotutako arau zorrotzak bete beharra dituzte gaur egun eraldatzeko guneek, eta horregatik, diru-kantitate handiak jarri behar izaten dituzte ekoizle askok horiek martxan jartzeko. Mimukaiko beheko solairuan eraikiko litzatekeen obradore publikoak aukera emanen lieke eskualde zabaleko ekoizleei haien produktuak legez eskatzen diren arau guztiak betez eraldatzeko, eta ondoren, nahi izanez gero, horiek komertzializatzeko.

“Eskualdeko elikagaien transformazioa eta komertzializazioa erraztea eta lehen sektorean enpresak, enplegua eta ekintzaile-

tasuna sustatzea dira egitasmoaren helburu zehatz batzuk”, diote otsailean proiektua azalduz zabalduko prentsa-oharrean.

Parte-hartze prozesua: sektore ezberdinekin eta herritarrekin

Mimukaik tokiko ekonomia esku-aldeko ikuspegiarekin garatzeko helburua izanen du, eta horretara bidean ildo nagusiak zehaztuta badituzte ere, eskualdeko ekonomia-sektore guztietako interesdunekin eta herritarrekin parte-hartze saioak eginez modu kolaboratiboan diseinatu nahi dute espazioa. Horretarako, heldu diren asteetan hainbat saio eginen dituzte, eta herritarrek bertan parte hartzera deitu dituzte:

- **Otsailaren 25ean**, Leitzan, 1. sektorea eta herritar interesdunak
- **Martxoaren 4an**, Leitzan, 3. sektorea eta herritar interesdunak
- **Martxoaren 11n**, Jaunsaratsen, 1. sektorea eta herritar interesdunak
- **Martxoaren 17an**, Lekunberrin, 1. eta 3. sektoreak eta herritar interesdunak
- **Martxoaren 24an**, Lekunberrin, 2. sektorea eta herritar interesdunak
- **Apirilaren 15ean**, Leitzan, 2. sektorea eta herritar interesdunak
- **Apirilaren 22an**, Goizuetan, udal ordezkariak
- **Maiatzaren 6an**, Leitzan, saio irekia.

Esther Lakasta, Basaburuko alkatea



“Hasieratik iruditu zitzaigun aukera ona Mimukai proiektua. Oraindik ez dakigu oso ongi zer izanen den, definitzeko baitago, baina gure eskualdearendako interesgarria izanen dela uste dugu. Alde batetik, Dorrea gaztandegiaren inguruan sortuko dugun aktibitate ekonomikorako guneari begira, gure inguruan zein behar dauden ikusten lagunduko digulako. Eta bestetik, sektore eta jardun ezberdinen arteko saretzea ere bultzatuko du.

Orain arte bakoitza bere kasa ibili da lanean, baina proiektu honek aukera emanen digu ikusteko zer dagoen gure inguruan, zein aukera dauden, eta harreman eta sinergiak sortzeko”.

Alfredo Unzueta, Imozko alkatea



“Cederna Galalurrekin eta bertako teknikari den Amaiur Unzuetaekin urte osoa daramagu lanean, eskualde osoan lehen sektorea eta ekoizle eta artisautzat estrategia estrukturatzen. Harekin egin genuen bileretako batean hitz egin zigun Mimukai proiektuaz eta Leitzatik batzar informatibo batetara gonbidatu gintuzten. Bertako ekoizleentzat aukera oso ona da, elkartzeko instalakuntza bat eta obratzaile bat edukitzea oso interesgarria izanen delako baliabide handiegirik ez biana jardun honetan.



▲ Lehen sektorea eta bertako produktuak bultzatzeko hainbat lan saio antolatu ditu azken hilabeteetan eskualdean Cederna Galalurrek. Irudian Atezko, Basaburuko eta Imozko saioak







Aroztegitik sahararren kausaren alde borrokan

Duela hamabi urte iritsi ziren Jon Aizkorbe eta Inma Arlegi Aroztegiko (Atetz) Goitikoetxera. Aurretik Berriozarren bizi izan ziren hainbat urtez, eta han hasi ziren sahararren aldeko borrokan lanean, Berriozarko Sahararen Lagunak taldean. 2010az geroztik, urtero bidaiatzen dute Tindufeko errefuxiatu kanpamenduetara. Otsailean, elikagaien bilketa antolatu zuten Aroztegiko Izarpe kanpinean.

• Nondik Mendebaldeko lotura?

Inma: Berriozarko lagun batzuek neskato bat ekarri zuten udan, eta harreman handia egin genuen berarekin. Horren ondoren, 2010ean kanpamenduetara bidaiatu genuen lehendabizikoz, eta geroztik gure familia daukagu han.

Jon: Euskal Herrian Saharekin lotura handia egon da beti, eta Berriozarren ere bai. Han hasi ginen, eta geroztik urtero kolaboratzen dugu haiekin. Orain, adibidez, elikagai bilketarekin buru-belarri aritu gara.

• datorkizue Sahararekiko

• Zuek jaso izan dituzue haur sahararrak etxean?

I: Ez, uda osorako ez. Baina Berriozarko Udalak etxebizitza bat jarri zuen bertara behar bereziak dituzten haurrak etortzeko, eta gu hara joaten hasi ginen, laguntzera. Hango haurretakoren bat ekartzen genuen hona egun pasa.

J: Bai, eta egun gehiago ere pasatu izan dituzte gurean. Arazo dezente zituen mutiko batek, adibidez, hamar bat egun pasatu zituen hemen, Aroztegin. Saiatzen gara etxebizitza horretara joaten eta haurrak handik ateratzen, hainbat toki ezagutzera eramateko.

• Azal dezakezue zein den sahararren egoera? Toki desberdinetan banatuta daude, ezta?

J: Bai, hiru zonaldetan banatuak daude momentu honetan sahararrak: batzuk Mendebaldeko Saharan daude, haien berezko lurraldean, Marokok okupatua duenean. Errepresio handia bizi dute bertan, eta tortura asko jasaten dituzte. Bestetik, liberatutako zonaldea dago, baina hor oso jende gutxi bizi da. Eta azkenik, Aljerian, Tindufen, errefuxiatuen kanpamenduak daude: populazio erdia, gutxi gorabehera, han bizi da.

• Azaroan gerra hotzak iritsi ziren Sahara aldetik berri...

J: Bai. Kontua da Marokok ez duela gerran sartu nahi, potentzial handia izanik ere, bulegoetan irabazi nahi du gerra. Trumpekin egon zen, egon zen Israelekin... Haiek gerra beste moduan irabazia dute honezkero. Noski, sahararrak nekatuta eta nazkatuta daude, batez ere gazteak, haiek gerrara joateko irrikitan daude. Guk hasieran ez genuen ulertzen, baina gero konturatzen zara bizi oso bat daramatela han itxaroten.

I: Eta errefuxiatu kanpamenduetako baldintza txarretan gainera, basamortuaren erdian. Ezin dute lanik egin, ez dute ezta lurrean zerbait landatzeko aukerarik ere. Horrez gain, laguntza humanitariotik bizitzea oso triste da.



Aroztegiko Goitikoetxean bizi dira
Inma Arlegi eta Jon Aizkorbe



• **Koronabirusak ere eduki izan du bere eragina kanpamenduetan, ezta?**

I: Bai. Pandemiaren kontu honekin, bigarren urtez jarraian kanpamenduetako haurrak ezingo dira uda pasatzera etorri, Oporrak Bakean egitasmoarekin. Hona datozen bi hilabete horietan osasuna irabazten dute, ongi janda bueltatzen dira, eta gainera, etxean jasotzen dituzten familiek eta ingurukoek laguntza handia bidaltzen dute hara. Orain, pena handia dugu haurrak ezin direlako etorri, eta familiak ere oso kezkatuak daude, bere garaian haien etxeetan egon ziren haurretako asko orain gazteak direlako eta gerrara joan nahi dutelako.

• **Elikagai bilketa egin berri duzue, nondik nora sortu zen ekimena?**

I: Kanpamenduetako egoerak okerrera egin du azken hilabeteetan, gerra hasi zenetik. Horrez gain, koronabirusa dela eta ere askoz laguntza gutxiago iristen da. Lehen egoera latza



Mahyoubekin, errefuxiatuen kanpamendurako bidaietako batean

bazen, orain are latzagoa da. Horregatik pentsatu genuen elikagai bilketa egitea. Alacantetik konboi bat ateratzekoa zenez, elikagaiak hemen bildu eta hara garraiatzea zen ideia. Egia da uste genuena baino elikagai gehiago jaso dugula: honezkero 30.000 kilotara iritsi gara Nafarroa mailan. Hemen bildutakoa kamioi batean jaso eta Alacantera bidaliko dugu, eta gero handik konboiean kanpamenduetara eramanez dute.



Sahararen aldeko elkarretaratzea Iruñean. @taxilari

• **Aroztegiko bilketak ere arrakasta handia izan zuen, ezta?**

I: Bai, Nafarroan herri askotan bilketak eginen zituztela ikusi genuenean pentsatu genuen: 'Zergatik ez dugu gure bailaran ere egiten?'. Virginia Ihabenekin hitz egin genuen, bera ere kanpamenduetan egona baita, eta bilketa Izarpe Kanpinean egitea erabaki genuen. Erantzuna oso ona izan da, Atetzek duen biztanle kopuru txikia kontuan izanda 100 kilo janari bildu baitzen. Horrelako ekimenek, gainera, jendeak Sahararen inguruan interesatzeko ere balio dute

J: Duela hiruzpalau urte Beuntzan hitzaldi bat ere antolatu genuen, eta jende asko hurbildu zen. Egia esan, iruditzen zaigu jendea gaiarekiko hurbil dagoela eta badakiela zein den hango egoera, baina askotan ez da horrela izaten, edo behintzat oso azalekoa da ezagutza hori.

• **Heldu diren hilabeteetan egonen al da mobilizaziorik?**

J: Momentuz, gerra hasi zenetik Nafarroan sahararren alde ari garen elkarte guztiak batzea erabaki dugu. Taldeak 'Grupo de Guerguerat' du izena, eta hainbat elkarretaratze eta mobilizazio deitu ditugu azken hilabeteetan Nafarroako hainbat herritan: Lizarran, Elizondon, Agoitzen, Tuteran, Zangozan... Azken asteetan elikagai-bilketan zentratu gara, baina orain berriz ere jarriko gara lehengo dinamikarekin martxan. Otsailaren 27an (SEAD, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren aldarrikapenaren urteurrena) manifestazioa egin da Iruñean. Guk hor jarraituko dugu lanean, Saharako kausa hiltzen ez uzteko eta han gertatzen dena salatzen jarraitzeko.



Eraso eta Auzako kontu pare bat

Euskeraren Adiskideak. Horrela zuen izena Nafarroan sortu zen euskararen aldeko elkarteak. Euskararen gainbehera gelditzeko eta euskara bera indartzeko. 1925a zen. Gainera gure alderdian egin zuten lehenbiziko bilkura, Auzan, hain zuten.

Garai nahasi hartan lan handia egin zuen "Euskeraren Adiskideak" deitutako elkarteak. Lana, guraso eta haurren artean batez ere.

Eskolak erdaraz izanik, hurrek ez zuten euskaraz irakurtzen eta idazten ikasten. Eta hor ikusi zuen zereginik bazegoela eta literatura lehiaketak antolatu zituen. Helduendako eta haurrendako.

1931ko irailaren bukaeran, gainera, Diario de Navarran, astero-astero, hasi zen euskaraz zerbait ateratzen. Eta Diarioko atal horretan agertu ziren kontu batzuk. Eta aipatu behar da, gure alderdiko bi kontu agertu zirela. Bat, Auzako Trini Anizek idatzia da, eta bestea, Erason bildutakoa.

Kontu horiek ekarri ditugu gaur hona.

Esaera zailak (Eraso)

"Otsoak muturra hotza dik"

Esaera zarren artean batzuek oso zallak dira aditzeko, beñere aditu ez ditunarendako. Baño erriak onelako esaerak ipuien baten bidez adierazten ditu.

Eraso, Imoz'ko erri pollitean artu genun hurrengo au bere ipui politarekin.

"Otsoak muturra otza dik" Zer esan nahi du? Ipuiak adieraziko dizute.

Negua zen. Elurra zeguan baztar guzietan eta lanerako etzegon girorik. Aita-seme batzuek otso eizera joateko asmoa artu zuten ba. Bazekiten lendik otso-obiak nontsu ziren. Zuzenian ara jo zuten. Otsakumeak zeuden otso-zulora erditxi ziranean, etzegoan otso-ama. Argatik eiztariaren semea, amar-amaika urtekoa mutiko

kozkorra, otso zulora sartzen asi zan: aita **ateizan** gelditzen zen artean. Malkor-zulo estua zen. Eta mutikoak burua nolabait sartu zuen; baño sorbaldak zabalegi an sartzeko eta atzera egin bear.

Asi zen buru atera naiez, baño belarrietan malkorrak min ematen, eta ez atzera ta ez aurrera, an gelditu zen mutikoa. Aitak esaten zion min pixkoa't artuko bazuen ere, ateratzeko. Baño mutikoak ezin zezakela atera ta erritik pikoak ekarri ta malkorra austeko, **esan zion**. Aitak orduan semeari: ta artean otsoa etorriko balitz? Ire aitaren esana gogoan ar'zak: "Seme, otsoak muturra otza dik gero!". Ori esanik, aitak etxera zidoaienarena egin zuen. Baño alditxo bat semeak zer egiten zuen zai egon ondoren, eskuak bete elur artu zuan eskuetan. Sastraka artean asots puska bat atera zuen eta semeagana urbildu zen, oni elurrez atzeko aldeak ukitzeko.

Elur izoztuaz aitak ukitu zuen orduko, semak uso demontre burua malkor artetik atera emen zuen.

Geroztik estu arkitu arren zirt edo zart egiñen ez balitz, zerbait **makurragokorik** bildur denerako, euskaldunak esaten dugu:

"Otsoak muturra otza dik"

Kontu hau, ia seguru, Aita Damaso kaputxinoak bildua eta idatzia izanen da. Damaso Intza bezala ezaguna. Intzan jaio, baina bi urtetan Madotza etorria. 12 urtetan Seminarioan lehenik, eta gero, Kaputxinoetan ikasketak egin zituen. Gizon handia izan zen kaputxino hau, Atte Damaso, gure herrian deitzen zioten bezala esan behar badugu.





Kontu hau, Diario de Navarran, 1931ko urriaren 30ean atera zen.

Zuk pagatu bear duzu

Nik aditu izandu diot nere amatxori kontu bat ikaszale batzuen.

Egun batean ikaszale okek jua omen ziran kampa atsalda pastera. Ok omen zeuden gosiak, eta gañera ez omen zuten diruik. Baño, ala ere, an ikustian etxe bat jua ziran denak arat. Batzuek etzuten jua nai ta esaten emen zuten ia zerekin pagatu bear zuten. Eta, ordun, batek esan zun: kontu egiten asten geralaik asarretu zaizte batek eta bestiak pagatu nai bezala eta ala sarrazi zituen. An sartu ta esan zioten etxeoandriari berendue prestatzeko. Eta etxeoandriak prestatu omen zuen segiden. Berendu ondorian eskatu zuten kontue eta orduan asi ziran denak asarreka. Batek esan omen zion etxeoandriari ya nai zun be begik estalzia ta arrek arrapatzen zuena arek pagatuko beharko zuela. Ta etxeoandriak esan emen zun baietz.

Orduan estalirik begiak asi zen arrapatzen; baño bestiak ura zebillelaik ala, egin omen zuten igesi. Aiek atra eta sartu zen nausia ta arrapatzen dio arei, ta esaten omen dio:

-Zuk pagatu bear duzu.

Orduan nausiak esan omen zion:

-Zer zabiltz?

Eta orduan kontatu omen zion zer gertatzen zitzaion.

Ola bukatzen du kontu onek.

Aniz'tar Trini Auza'koa.

1926an **Euskeraren Adiskideak** saritutako ipuia.

Trinidad Aniz, Auzako maistraren alaba zen eta Don Emilio Goldaratzena apezaren iloba. Auzar honek 14 urte zituen hau idatzi zuenean, 1926an, 1912ko ekainaren 3an sortua baitzen. Eta Diarioan, 1931ko abenduaren 16an atera zen.



Txurdan

OHARRAK:

1.-*Diario de Navarran* hasi ziren, astero-astero, kontu eta idatzi ttiki batzuk euskaraz ateratzen 1931ko irailean. Astero-astero jarri dugu, hori baitzen asmoa. Hasieran bai, baina gero noizbehinka besterik ez ziren atera. Eta oso-oso gutxi iraun zuen gainera, 1934. urterako behintzat bukatutzat eman zuen *Diarioak* euskararen aldeko "oparitxo" ttiki hau. Garai gogorak ziren haiek. Oraingoak ere ez ditugu ba samurrak euskararentzat, Nafarroan behintzat.

2.-*Hutsak eta Okerrak*

Beti bezala, erdaldunek gure hizkuntza tartean hartzen dutenean, akats asko samar izaten dituzte. *Diarioan* ere askotxo ageri dira. Eta 90 urte beranduago berdintsu gabiltza.

-*Diario*ko tipografoak egin okerre gain, besterik gabe zuzendu ditugunak, dudako hitz batzuk ere baditugu:

-*Atezuan gelditu*: ateizan gelditu dator *Diarioan*. Erne, zain...

-*Esan zion*: jo zion dator *Diarioan*. Okerra? Guk aldatu egin du.

-*Makurragorik jarri dugu* guk. *Makurragorik zetorren*. Zuzenagoa iruditzen zaigu. Hala ere, guk behintzat ez guke ez batera ez bestera ibiliko hemen.



Damaso Inza, Madotz-Intzako kaputxino bizar handi famatua. Gurean Atte Damaso zena (Euskaltzaindiko Bidegileak sailetik hartu dugu fotografia)

Hiztegia:

Lehiaketa: concurso.

Atala: parte, zatia.

Esaera zarra: atsotitza, refran.

Otso-obia: otso zuloa.

Otsoak bizi diren lekua. Eraso eta Etxalekuko muga bada Otsopasaje edo Otsopasajeta deitzen diogun lekua.

Erditxi=erdietsi: alcanzar (hemengoa ere bada hitz hau)

Malkorra: peña (hemengoa ere bada hitz hau)

Asotsa: ruido, rumor (hemengoa ere bada hitz hau)

Sastraka: maleza, matorral (hemengoa ere bada hitz hau)

Uso demontre: Usu demontre: Hagitz agudo (hemengoa ere bada hitz hau)

Sarraz=Sarrarazi

Be=bere

Atra=Atera

Aniz-tar Trini. Garai hartan Trini Aniz sinatu beharrean, halakotar Miguel edo Felisa sinatzen zen.

Emakume langilearen egunean, izurriteak azaleratutako krisia jomugan

Covid-19aren pandemian iritsi zaigu aurtengo Martxoaren 8a, Emakume Langileen Eguna. Aurtan ez ditugu mobilizazio erraldoiak ikusi, baina mugimendu feministek era sakabanatuagoan eraman dituzte aldarriak kalera, auzoetan eta herrietan. Izurriteak, osasun krisiaz harago, azaleratu dituen sistemaren gabeziak eta indarkeriak salatu eta zaintza erdigunean jarriko duen ereduak aldarrikatu dituzte kolektibo ezberdinek. Baita gurean ere.

• Ekofeminismoa helmuga

Basaburuko Basandereak taldetik ekofeminismoa aldarrikatu nahi izan dute: "Ekofeminismoak hamarkadak daramatza bizitza erdigunean jartzea aldarrikatzen, etorkizun desiragarria, jasangarria eta inklusiboa sortzeko. Eta horrela, bizitzak merezi izango du bizitza". Zaintzei duten garrantzia eman eta "emakumeen jakinduriak txertatuko dituen etorkizuna" garatu behar dela adierazi dute.

Uste dute aspalditik eskatzen ari diren aldaketa horien beharra argi utzi duela izurriteak, eta konponbideak gertutik, gure inguruko harremanetatik hasi behar duela aldarrikatu dute: "Iraultza handiak hurbileko aldaketa horietatik abiatu baitziren. Aldarrikatu dezagun gure herrien eta bizilagunen bizitzaren eta zaintzaren balioa".

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Berdintasun Arloan ere ildo beretik joan da aurtengo adierazpena: "Krisi sanitario, sozial eta ekonomiko honek agerian utzi du pertsona eta bizitza guztiak balioetsiko dituen eredu ekonomiko eta sozial baten alde lan egiteko beharra".

Gainera, hainbat konpromiso hartu dituzte, haien artean: "Bizitzaren jasangarritasuna politika publikoen erdigunean jartzea", eta agenda politikoan lehentasuna izan dadila.

• Dena aldatu, sistema arrakalatu: Mugimendu Feministaren alda-rria

Basaburuko Bilgune Feminista Euskal Herriko mugimendu feministaren aldarriari jarraituz antolatu da aurtan. Gobernuak kapitela lehenetsi dutela salatu du mugimendu feministak, eta emakumeen kontrako erasoek ez dutela etenik:

"Abusu polizial eta instituzional arrazistak jasan ditugu, ehunka kide kaleratuak izan dira, milaka emakume lan merkatua utzi behar izan dute zaintza lanengatik, indarkeria matxistak ez du etenik, eta krisialdiak eragin zuzena izan du eremu feminizatueta, bereziki egoera irregularrean dauden emakume langileen eremuan". Baina krisia ez dela pandemiarekin hasi adierazi dute, eta horregatik, "sistema kapitalista, heteropatriarkal eta arrazista arrakalatzeko, feminismoan antolatu eta kolektiboki borrokan" jarraitu behar dutela aldarrikatu dute..



EHko Mugimendu Feministaren lema



Mankomunitateen aurtengo kartela



“Ez dakigu nora eramango gaituen, baina behintzat esperientzia ahaztezina izatea espero dugu”

Abian musika taldea sortu du Itziar Olague Barberena lizasoarrak Txantreako Maialen Aizpun eta Nahia Garaikoetxearekin batera. Berak biola jotzen eta bigarren ahotsa egiten du, Maialen Aizpunek gitarra eta Nahia Garaikoetxeak gitarra eta trikitixa. Txantreakoak dira ahots nagusiak. Euskarazko bertsioak egiten hasi ziren baina beraien kantak ere sortzen ari dira. Larraintzarren aretoa bete zuten bi emanaldietan, eta ez digute aurreratu non, baina eskualdean berriz izanen omen dira.

Itziar Olague Barberena Eskola Etxeko alaba da eta 20 urte ditu. Zazpi urte daramatza kontserbatorioan biola jotzen. Aurretik Nua taldean jo du, eta Abian da bere bigarren proiektua.

• Nola sortu zen Abian?

Nahia eta Maialen koadrilakoak dira eta aurretik elkarrekin egin dute zerbeit. Nik ezagutzen nituen, baina ez genuen harreman esturik. Egun batean, Iruñean, hain zuzen ere juevintxo batean, Nahia eta biok topo egin genuen, Lizasoko Ixiar Braco lagun komuna dugulako. Etxera bueltan talde bat osatzeko asmoa zutela esan zidan eta parte hartzeko proposamena luzatu

zidan, eta abentura honetara animatu nintzen. Handik gutxira entseatzen hasi ginen.

• Larraintzarren izan zineten otsailaren 26an, aurretik eman al duzue emanaldirik?

Taldea sortu eta denbora gutxira sortu zitzaigun jotzeko lehenengo aukera. Txantreako jai txikietako egitaraua asko murriztu zen pandemiaren eraginez, baina zenbait gauza antolatu zituzten, haien artean kontzertuak. Jotzeko proposamena egin ziguten Auzotegi Kultur Etxetik, eta nahiz eta denbora gutxi generaman eta ez genekien nola iritsiko ginen, baiezkoa eman genuen. Helburu gisa jarri genuen

kontzertu hura, horrela entseatzeko ohitura hartuko genuen eta gauza berriak probatzeko aitzakia izanen genuen. Azkenean iritsi ere, iritsi ginen, eta ongi gainera! Oso pozik gelditu ginen kontzertu harekin, egoeragatik posible zen jende kopurua hurbildu baitzen eta emaitzarekin ere gustura gelditu ginen.

• Ze motatako kantak jotzen dituzue?

Hasi berriak garenez bertsioak egiten hasi gara. Gehienak euskaraz, baina gazteleraz ere badugu baten bat. Aldi berean, gauza berriak probatzen hasi gara eta badugu gurea den kantaren bat edo beste.

• Aurretik beste talderen batean aritu zarete? Zuk Nuan jo duzu...

Nire esperientzia bakarra Nua edo El mudo con voz taldean izandakoa da, baina bestelakorik ez. Dena den, musikan betidanik ibili naiz, bizitza osoa baitaramat musika ikasten! Nahiak gitarra klaseak jasotzen ditu eta, Maialenek, berriz, bere kabuz ikasi du. Hau da gutxi gorabehera gure lehenengo proiektua eta ez dakigu nora eramango gaituen, baina behintzat esperientzia ahaztezina izatea espero dugu! Bizi dugun egoera honetan jotzea eta horretaz gozatzea guretzat kristoren aukera da! Eta ikustea, gainera, jendea gu ikusteko irrikitan dagoela izugarria da!



▲ Ezk-esk. Itziar Olague, Nahia Garaikoetxea eta Maialen Aizpun



Kin Potowski (I)

Gaztelera galbidean?

Estatu Batuak (Estados Unidos) "Estatu Batuetako gaztelaren etorkizunaz" da hitzaldia, Madril. Kin Potowski, hizkuntzetan aditua da mintzo dena. Hizkuntzetan aditua, ingelesean eta gaztelaren batez ere.

Hitzaldi horretan jalkitako hainbat datu dakarzkizut:

Estatu Batuetan 320 miloi lagun bizi dira, eta horietatik 51 miloi latinoak dira. Eta hauetatik, 38 miloi lagun mintzatzen omen dira espainolez, gehientsuenak Mexikotik joanak. Beste aunitz Puerto Ricotik eta gainerakoak Erdialdeko Amerika eta Hego Ameriketatik joanak. Horietaz landa ere ba omen da gaztelaraz dakiena, eskolan ikasi duelakoz, Hego Amerikan bizi izan delakoz...

Eta ez hori bakarrik, Estatu Batuetan sortzen diren haurretatik lautik bat "hispanoa" bide da.

Estatu Batuetan badituzte hainbat telebista kate, irrati, aldizkari... denetarik, gaztelera hutsean.

Bai, Estatu Batuetako gaztelaren egoera bera nahi genuke guk hemen euskararendako.

Beraz, gaztelaren etorkizuna oparoa da Iparramerikan. Bai? Hara hizlariak zer dioen, basoa erdi betea ote dagoen bere buruari galdetu dioenean:

-Ez, nik erdi hutsa dagoela diot. Eta zergatik?

Ni Unibertsitatean ari naiz lanean, neska-mutilekin, gaztelaraz ederki dakite, ongi dakite, baina beren ingelesa bizkorragoa da. Eta kontua da ingelesez ari direla beti.

Eta nik galdetzen diet:

-Zuen umeek ikasiko dute espainolez?

-Bai, bai, ikasiko dute -denak erantzun bera-

-Eta nola? Zuek beti-beti ingelesez ari zarete eta. Eta zuen bikotea ia seguru ingelesduna besterik ez da izanen eta!

Pentsatzen jartzen dira eta,

-Bai, baina amatek zainduko ditu eta harekin ikasiko dute gaztelaraz.

-Bai, amatek kontua oso-oso inportantea da, baina zuek, zuek aitatxi eta amatek zaretenean zer?

Honetan utziko dugu kontua. Orain nire gogoeta batzuk:

a) Geren burua engainatzeko dugun joera hori bera salatzen du Potowskik (euskara ikasiko dute...)

b) Erdaraz euskaraz baino gehiago jakinik, zergatik ari euskaraz? Hor borondatea behar da, borondate bizkorra gainera. Badugu borondaterik? Euskararenganako atxikipena, maitasuna behar da. Badugu atxikipenik, badugu maitasunik? Beharrezkoa den maitasun eta atxikipen hori txertatzen diegu gure hurrei?

Hurrengo ardo frexkorako gehiago. Izan ongi.



Txurdan

Hiztegia

Mintzo dena: mintzatzen dena.

Aditua: espezializatua.

Jalki: desgranar (Hemen ere erabiltzen da hitz hau)



Kin Potowski, New Yorkeko hizkuntzalaria ▲

Zorionak Zorionak !



Zorionak Amaia!



Zorionak Belate-Iruña eta Olatz!



Zorionak Iosu!



Zorionak Iher!



Zorionak Rikardo!



Zorionak Iñigo!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Andrea Aldaregia, pilota

Nafarroako binakako txapelketa irabazi du Olatz Ruiz de Larramendirekin bikote

Emakumezkoen pilota txapelketa bat antolatzen dela, han da Andrea Aldaregia latasarra (Imotz). Txikitan pilota utzi eta gero, duela 6 urte itzuli zen kantxara. Orduan ez zuen espero txapelik etxera eramatea, baina zenbait jantzi ditu geroztik. Azkenekoa, Nafarroako Binakako Txapelketakoa.

Olatz Ruiz de Larramendirekin batera txapeldun izan da Andrea Aldaregia latasarra Nafarroako Binakako Txapelketan. 22 eta 15 irabazi zuten Bortzirietako Irantzu Etxebeste eta Naroa Elizalderen kontra. Txapeldunak, oso pozik, noski: "Partida gogorra izan zen, baina ongi atera zen, eta txapela etxera ekarri genuen".

Ez da Olatz Ruiz de Larramendirekin jokatzeko duen lehenengo aldia, baina bai elkarrekin irabazten duten lehena: "Asko jokatu dugu elkarrekin baina ez genuen txapela lortzen eta azkenean lortu dugu, horregatik oso pozik gaude".

Eskerrak, Latasako taldeari

Duela pare bat urte hasi ziren pilotari talde bat Latasan entrenatzen. Udalak Aldaregiari frontoia uzten zion bertan aritzeko eta gainontzekoei zabaldu zientean Imozko herri hau bihurtu zen haien egoitza. Astero bitan biltzen dira Eulateko Maite eta Olatz Ruiz de Larramendi izeba-ilobak, Uharteko Ane Mendiburu, Aresoko Erika Fernandez, Altsasuko Udane Bergara, Leitzako Iera Agirre, Berako Irantzu Etxebeste eta Andrea Aldaregia bera.

Hain zuzen ere haiei eskaini nahi izan die txapela: "Astero ari gara elkarrekin jokatzeko eta horrek asko laguntzen dit hobetzeko. Oso pozik nago beraiekin entrenatzeagatik, eta beti eskertzen diet".

Hurrengo erronka, Emakume Master Cup-a

Martxoan hasiko da berriz ere Emakume Master Cup-a, Asteasun, eta bertan lehiatuko da Andrea Aldaregia Andoingo Nora Mendizabalekin batera. Dena den, aurten, gainontzeko arloetan bezala, izurriteak eragina izanen du: "Txapelketa laburra izanen da, hala izan beharra dute pandemiaren eraginez, eta, horregatik, hiru partida besterik ez ditugu jokatu".

Pilotara itzuli

Andrea Aldaregia zazpi urte zituela hasi zen pilotan, Irurtzunen, Amaia Jaka lagunarekin batera. Nafarroan pilotan aritzen ziren neska bakarrak ziren. Horregatik, 14 urterekin utzi behar izan zuten, ez baitzuten norekin lehiatu. Duela sei bat urte, Jakak berak animatuta, pilotara itzuli zen Aldaregia.



Andrea Aldaregia eta Olatz Ruiz de Larramendi, Labriten



ekoaholkuak

“Behin erabili eta bota, edo berrrerabili?”

Garai batean ohikoa zen poltsikotik oihalezko mukizapia atera eta mukiak kentzea. Oraindik ere jende helduaren arten ohitura hau ikus daiteke noizbehinka. Hala ere, gehiengoak behin erabili eta botatzen diren mukizapiak erabiltzen ditu, eta oparituko balizkigute bezala, mukizapiak deitu beharrean, markaren izenaz deitzen ditu. Edozein poltsa edo motxila

arakatuz gero, gehienetan holakoak topatuko dituzu, nekez oihalezkoak.

Gauzak behin erabili eta botatzea modernitate, erosotasun eta garbitasunaren ikur bilakatu da, eta zapiekin (berdin mukietarako zein musukorako) berdin gertatu da. Bada, hilabete honetan hiru ikur horien inguruan hausnartzera gonbidatu nahi zaituztet:

1.

Modari garrantzi handia ematen badiozu, ausartu zaitez zure gusturako diseinatutako zapiak erabiltzen. Zalantzarik gabe paperezkoak erabiliz gero, errazago izango da besteenak bezalakoak izatea zureak ere, aldiz oihalezkoak eskusiboak izan ditzakezu!

2.

Garbitzea lan bat dela, ezin ukatu. Erosketak egitea eta zakarra botatzea ere bai, ordea. Bata beste biekina ordezkatzuz gero, balantza orekatuta gera daiteke.

3.

Garbitasunari dagokionez, zapi zikinak ez dira birziklatzen, beraz, edukiontzi berdera doaz eta handik zabortegei edo erraustegietara. Nor da garbiagoa, beraz, zabortegei edo erraustegiak elikatzen dituen edo oihalezko zapiak erabiltzen dituen?

Hona, beraz, hilabete honetarako erronka; hausnartu, erabaki eta beharrezkoa bada aldatu! Bide batez, gogoratu, behin erabiltzen diren musukoek, gure basoetatik bat baino gehiago ikusi ditudanak honezkero, 400 urte behar dituztela naturan desegiteko. Musukoekin ere, garbia izan zaitez!



▲ Oihalezko muki zapiak



Martxoaren 8ra begirako gomendioak eta programazio kulturala

Urtero bezala, martxoaren 8an ospatzen dugu nazioarteko emakumeen eguna, eta ostiral kulturalen programazioa horrekin lotutakoa izango da, alde batetik. Bestetik, liburutegitik bi emakume idazle nafar gogoratu nahi ditugu: Karmele Saint-Martin eta Maria Luisa Elío. Haien izenak agian ez dira oso ezagunak, baina garrantzi handia izan dute literatura arloan biek.

María Luisa Elío

Gabriel García Marquezek bere libururik ospetsuena eta literatura unibertsalaren klasiko bat eskaini zion María Luisa Elíori: *Cien años de soledad*. "Para Jomí García Ascot y María Luisa Elío" irakur daiteke liburuaren argitalpen guztietan (eta izango dira milioika ale munduan zehar). *Cien años de soledad* irakurri zuen lehengo pertsona María Luis Elío izan zen eta irakurri baino lehen García Marquezen ahoatik Buendía familiaren istorioak entzun zituen.

Iruñean jaio zen. Bere aita Luis Elio epaile errepublikarra zen. Luis Elio, 1936ko kolpe militarren ondorioz trasteleku batean ezkutatu zen, gaur La Meca dagoen lekuan, eta hor egon zen, bizian lurperatua, hiru urtez. Bere babeslekutik Iruñeko Zitadelako fusilamenduen tiroak entzuten zituen (Eliok berak kontatzen du idatzi zuen liburuan, *Soledad de ausencia*-n). Azkenean, Iparraldera ihes egitea lortu zuen, eta handik Mexikora, familiarekin. Emaztearekin eta hiru alabekin joan zen, Maria Luisa tartean.

Luis Elio ez zen inoiz sendatu, ez fisikoki eta ezta mentalki ere, baina familiak bizitza berri bat hasi zuen Mexikon eta, adibidez,

Maria Luisak eta bere senarrak (Jomí García Ascot zinegilea) garaiko intelektual asko ezagutu zituzten: Juan Rulfo, Octavio Paz, Luis Buñuel eta García Márquez.

María Luisa Elíok, gainera, liburu batzuk idatzi zituen, ezagunena dudarik gabe *Tiempo de llorar* da. Bertan, 60ko hamarkadan Mexikotik Iruñera egindako bidaia bat kontatzen du. Oso hiri goibel eta iluna aurkitu zuen idazleak, militarrez eta apaizez gainezka. "Regresar es irse" idatzi zuen Eliok bere liburuan, eta Mexikora itzuli zen betirako. Gaur, azkenik, urte luzeak ahaztuta pasa ondoren, Barañaingo liburutegiak bere izena eraman du, merezimendu osoz, Maria Luisa Elio iruindar unibertsalenetako bat delako, zalantzarik gabe.



María Luisa Elío eta Gabriel García Márquez

Karmele Saint-Martin

Karmele Saint-Martini dagokionez (edo Carmela Saint-Martin, edo Carmen Navaz Sanz, bere benetako izen-abizenak), bere obra aldarrikatzeke dago oraindik. Maria Ana Sanz pedagogoaren alaba, Karmele 60 urterekin hasi zen bere liburuak argitaratzen. 1895. urtean Iruñean jaioa, 1955ean irazabi zuen sorpresaz (inork ez zuen ezagutzen) Leopoldo Alas literatur lehiaketa, bere generoan (ipuinak) Españako ospetsuena. Bere ipuinak, gaurtik begirata, oso modernoak dira: ukitu beltza eta makabroa dute, protagonista bitxiak dituzte, eta askotan amaiera harrigarriak dira. Segur aski Karmele Saint-Martin nobela beltzaren izar bat izanen litzateke gaur egun, baina bere garaira aurreratu zen. Liburu asko idatzi zituen Saint Martinek: ipuin bildumak, nobela, haur literatura... Liburutegian *Cruel Venecia* daukagu, Nafarroako Gobernuak kaleratutako ipuin bilduma, hitzurre oso mamitsua duena eta emakume hau hobeki ezagutzen lagunduko diguna.



Karmele Saint Martin



Ostiral kulturalak

Arrakastaz jarraitzen dugu programazio kulturalarekin. Ostiralero, COVID protokoloak eta negu gorria gorabehera, Larraintzarko aretoa betetzen dugu, eta eskerrak eman nahi dizkizuegu kulturari bizirik eusteagatik. Hilabete honetan, esan bezala, ekimenak emakumeen nazioarteko egunarekin lotuta daude.

Martxoaren 5ean, liburu baten aurkezpenarekin hasiko gara: *Rebeldes y peligrosas* de cine, María Castejonena. Femme fatalak, errebeldeak, pistolariak, piratak, abenturazaleak, ama eta emazte txarrak, prostitutak, zoroak, bortitzak... María Castejónen, liburu honetan, hausnarketa egiten du zinemaren arauetatik aldentzen diren, genero-aginduak dinamitatzen dituzten eta erreferente berriak irudikatzen dituzten emakumeen inguruan, nahiz eta inposatutakoa haustekak beti prezio bat duen.

Hurrengo ostiralean, **hilaren 12an**, UNRAW Nafarroaren (Nazio Batuen Erakundeak Palestinan bizi diren errefuxiatuentzako duen Agentzia) laguntzarekin, bisita gidatua egingo dugu Gizarte Etxean egun batzuetan emakume palestinar errefuxiatuen egoerari buruz izango dugun erakusketa birtualera. Bisita COVID protokoloa errespetatuz egingo da, bost pertsonako taldeetan. Beraz, liburutegia@ultzama.es helbidean lekua erreserbatzea gomendatzen dugu. Ez da beharrezkoa, baina, erosoagoa izan dadin, bisitariek beren baliabideak erabiltzeko aukera izanen dute (telefonoa, tableta).

Eta bukatzeko, dokumental errealista eta onirikoa ekarriko digu Yolanda Mazkianek **martxoaren 26an**, euskal mitologiaren numen nagusian oinarritua: Mari edo Anbotoko daman, paleolitotik gaur egun arte Euskal Herriaren oroimen



Emakume palestinar errefuxiatuen egoerari buruzko erakusketa izanen da



María Castejónen *Rebeldes y peligrosas de cine* aurkeztu zuen

kolektiboan bizirik iraun duen dama antzinako eta misteriozkoan. Mari euskal mundu primitiboaren metafora handia da, eta, zorionez, iraun ez ezik, egungo gizartearen arauak ulertzeko eta horiei aurre egiteko ere oso lagungarria izan daiteke.

Zuen zain gaude eta gogoratzen dizuegu oso inportantea dela neurriak betetzea (eskuak garbitzea, distantzia mantentzea, maskara erabiltzea...) kultur ekimenak egiten jarraitzeko eta kultura-gune segurua izateko.

 **Patxi Irurzun**
Ultzamako liburuzaina

2021eko urtarril edo ilbeltza

2021eko urtarril edo ilbeltzean gure alderdian izan diren jaiotzak eta heriotzak

Sortzeak:

ANUE Aritzu

Aner Mariñelarena Telletxea, ilbeltzaren 8an sortu zen **Luxenean**; Iñaki eta Noeliaren semea.



▲ Aner sukaldean dugu, bero-beroa

Etulain

Iker Pascal Altuna, ilbeltzaren 20an sortu zen; Raul eta Cristinaren semea.



▲ Iker etorri zaigu.
Raul eta Kris, pozik baino pozikago

Heriotzak:

BASABURUA Igoa

Oliva Ezkurra Altsua, **Salbadorreneko** etxeakoandrea; urtarilaren 9an hil zen 88 urtetan.



▲ Oliva Ezkurra Altsua

ATETZ Eritzegoiti

Ortzi Baztan Santxo, ilbeltzaren 18an sortua. Iban eta Goizargiren semea.



▲ Ortzi gaixoa Amalurren altzoan

Itsaso

Jose txo Zubillaga Auza, **Kaxeneko** nagusia; urtarilaren 31n hil zen, 78 urtetan.



▲ Jose txo Zubillaga Auza

“ Zuen maitasuna,
gelditzen zaiguna.”

ULTZAMA Urritzola

Josu Landiribar Cobos, urtarilaren 23an sortua. Gurasoak: Imanol eta Maite



▲ Josu ttikia Maiteren besoetan eta Imanol, Naroa eta Oinatzekin

“ Zorionak gurasoei ”

IMOTZ Etxaleku

Joxe Jabier Astitz Urritza, urtarilaren 3an hil zen, 95 urtetan. **Marimigeleneko** semea.



▲ Javier Astitz Urritza

ULTZAMA Alkotz

Ignacia Goñi Ziganda, urtarilaren 19an hil zen 87 urtetan. **Toki Eder** etxeako etxeakoandrea.

Juan Macaya Eslava, urtarilaren 24an hil zen 91 urtetan. **Macayaren etxe**ko nagusi zaharra.

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



ESAN ERRAN IRRATIKO PROGRAMAZIOA

2020-2021 denboraldia

ordua	Astelehena	Ateartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
07-08:30	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina
08:30-10	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala		
10-11	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz		
11-13:30	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Musika	Soinugela
13:30-14:30	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz	Lur eta Murmur / Paperezko itsasoa	
14:30-15:30	Reggae Fever	Beste bat	Beste bat	Beste bat	Beste bat	Bertsoinka	
15:30-16	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika
16-18	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea		
18-19	Hiru Kortxea	Kultur kuboa	Gramofono	Piperpolis	Kolpez kolpe		
19-20		Musika	Musika	Musika			
20-21	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz	Bidasoa Attack	Berria FM/ Dunbala
21-22	Erro ta Berri	Zuria Beltzez	Mestibull	Pentsatu ez sinistu / Ithaka ukatuz	Haus of beats	Musika	Booktegi
22-07	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika

ESAN ERRAN IRRATIA: Egun Ero magazina, Egun Ero Kantuz saio berezia eta Esan Erraneko musika

ARROSA SAREKO IRRATIAK: Naiz Irratia, Xorroxin, Bilbo Hiria Irratia, Hala Bedi, Txapa Irratia, Radiokultura, 97 Irratia eta Arraio Irratia

EUSKADI IRRATIA

EUSKALERRIA IRRATIA: Metropoli Forala

BESTEAK....: Booktegi.eus-eko irakurketak eta Berria.eus-eko Berria FM